Izan zaitez KORRIKA Laguntzaile!

21. KORRIKA abian da, AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

2019ko apirilaren 4an hasita, 11 egunez, Euskal Herria zeharkatuko du KORRIKAk hogeita batgarren aldiz. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe.

AEK-k antolatzen du KORRIKA, euskararen berreskuratzea eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea xede dituen erakundeak. Hori lortzeko, helduen euskalduntze eta alfabetatze alorrak jorratzen ditu, batik bat: euskara-eskolak, ikerkuntza, material didaktikoen sorkuntza, irakasleak prestatzeko ikastaroak, euskara-planak, itzulpenak, mintza-taldeak...

21. KORRIKAk jasoko duen dirua Euskal Herri osoko bere euskaltegiak laguntzeko erabiliko du AEK-k. KORRIKA Laguntzaileak KORRIKAren zutabe nagusietako bat dira. Aurten ere laguntza bera eskatzera gatoz, hau da, 21. KORRIKAren KORRIKA Laguntzailea izan zaitezen nahi dugu. 12 euroren truke jasoko duzu aurtengo KORRIKA Laguntzailearen pina, urtarriletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dizun KORRIKA Laguntzaile txartela eta txartela onartuko duten komertzioen zerrenda dakarren katalogoa. Eta, batik bat, 12 euro emanez, KORRIKA Laguntzailea izango zara.

Izan zaitez KORRIKA laguntzaile eta gozatu bideaz!

Klika
aek 21. korrika

21. korrika 2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA

Bete ezazu eskaera orria eta 12 euroren truke KORRIKA laguntzailea izango zara. Bermatzen da eremu guztiak bestaldea. Korrikaren informazio jasotzeko eta gure eskaeletan parte hartu ahal izateko.

Izena NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea Telefonoa

E-posta

Kontu Korrontea (aukeran)

IBAN ENTITATEA BULEGOA KONTROLA KONTU ZENBAKIA

Erabileraren arduraduna: AEK. Xedea: [illegible] Legitimazioa: kontratu gestiogatzea. Hartzaileak: zure datuak bankuari, [illegible] Eskubideak: zure datuak eskura, zuzen eta ezaba ditzakezu, bai eta beste eskubide batzuk egikaritu eta datuen babesari buruzko informazio gehigarria lortu ere, hemen: www.aek.eus

☐ Irakurri ditut nire datuen tratamenduarekin eta lagapenarekin lotuta goian aipaturiko baldintzak eta onartzen ditut.

Erabileraren arduraduna: EUSKARAZ KOOP -AEK. Xedea: KORRIKA laguntzailea kanpaina sustatzea. Legitimazioa: Hitzarmen bat gauzatzea. Hartzaileak: KORRIKAk kanpaina honetarako sortutako [illegible] Eskubideak: Zure datuak eskura, zuzen eta ezabatu ditzakezu, bai eta beste eskubide batzuk egikaritu eta datuen babesari buruzko informazio gehigarria lortu ere, hemen: www.aek.eus

☐ Irakurri ditut nire datuen tratamenduarekin eta lagapenarekin lotuta goian aipaturiko baldintzak eta onartzen ditut.